


Gure kostaldea aberastu zuen animalia handia



Bihar beteko dira ehun urte Orion Bizkaiko itsasoan ikusi den azken balea harrapatu zutela

NORA ARBELBIDE / GORKA EROSTARBE

Nork ez ditu behin edo behin Orioko balearen bertsoak entzun? Eta nork ez daki horren ondorioz 1901eko maiatzaren 14an balea agertu zela gipuzkoar kostaldeko herrixka horretan? Gure kostaldean harrapatu zuten azken balea zela diote garaiko kronikek. Horregatik bihurtu da hain egun berezi eta kuttuna arestian aipatua (mendeurrena ospatuko da bihar). Oriotarrek atzemandako ugaztun hura euskal balea arrantzaleek mendeetako ekinbidean egindako hamai-ka balentriaren azken adierazlea baino ez da, ordea; mendeetan euskal kostaldeko eta, bidenabar, Euskal Herri osoko sostengu ekonomiko nagusia izan zenaren azken harrapakina.

Manuel Olaizola, Loidi, Uranga, Atxaga, Manterola eta enparauek (hala diote bertsoek) balea harrapatu zutenerako dezente ahanzia zuten oriotarrek balea zer zen. XIX. mendeko balea urri urreratzen ziren euskal kostaldera; aldian-aldian baino ez zuten agertzen muturra. «Oriotarrek beraiek ere, etxeetako armarrietan azaltzen ziren balea irudiak erdi asmatuak edo mitologiko xamarrek zirela uste zuten, eta balea hura azaltzean egiaztatu zuten ez zirela halako asmakizunak, ez zirela gezurrak, lehengo egia ahaztuak baizik», adierazi dio EGUNKARIARI Jose Antonio

Azpiazuk, iaz *Balleneros vascos en el Cantábrico* liburua idatzi eta XVI. mendean aditua den historialari oñatiarrak. «Balearen bila joan gabe» egin zuen topo bera-ekin Azpiazuk, eta «hori baleek Euskal Herriko historian izan duten garrantziaren adierazle da», azaldu digu. Gainera, Bizkaiko itsasoan bale harrapaketan ibiltzen ziren arrantzaleak omendu nahi izan zituen bere liburuarekin: «Ternua aldeko balea oso ezaguna zen, baina Bizkaiko itsasokoa agian ez horrenbeste; oso ahaztua izan dugu. Aspaldi batean Zirikiain Gaiztarrok egindako lanetik kanpora inork ez

JOSE ANTONIO AZPIAZU

«Autore batzuek esaten dute kostaldeko herriak balearen inguruan sortu, handitu eta indartu zirela»

du ikertu Bizkaiko balea. Ternuara 1540 inguruan hasi ziren joaten hemengo arrantzaleak; 300 urte lehenago, ordea, Bizkaiko itsasoan ere harrapatzen zituzten baleak.



Ezkerrean, 1351ko Miarritzeko zigilu bat. Eskuinean, Getariako (Gipuzkoa) harmarri bat. • ETOR

XII-XIII. mendean euskal balea arrantzaleak bazeuden jada. Are gehiago, autore batzuek esaten dute itsasaldeko herriak balearen inguruan sortu, handitu eta indartu zirela».

Erdi Aroko dokumentazioa urria izan arren —«are gehiago Euskal Herrian»—, XII. mendean euskal balea arrantzaleak izan bazirela ziurtatzen duten dokumentuak aurkitu izan dira: «Esaterako, badira bermeotarrek Galiziara jo izan zutela agerian jartzen duten dokumentuak. Hiru-lau hilabetetarako joan, han negozioa egin eta, ondoren, itzultzen ziren. Orduan omen zen balearen garai oparoena, Erdi Aroan».

Balearen gantza eta balearen bizarrak

Dokumentazioa ikaragarri ugaldu zen XVI. mendean. Garai hartako merkatarien bi «zutabe nagusiak» burdina eta balea zirela dio Azpiazuk: «Balearen gantza, bizarrak eta hezurak erabiltzen ziren batez ere. Bizarrak, plastiko espezializatu baten antzekoak ziren, oso gogorrak eta malguak. Esaterako, Bergaran aiztoak egiten ziren, eta, kirtena egiteko, baleen bizarrak erabiltzen ziren. Kategoriako labanak ziren. Balea gaztea izanez gero, haragitarako zen». Garai hartan balea bat harrapatzeak herritarrentzat garrantzi itzela zuela dio Azpiazuk: «Balea herriko talaia-rik ikusten zutenean, 'balea' oihu egin, egiten ari ziren hori